

**ARTIKULAZIO TENPOROMANDIBULARRAREN KIRURGIA MINIMOKI INBADITZAILEA
EGITEKO BAIMEN INFORMATUA****CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA CIRUGÍA MÍNIMAMENTE INVASIVA DE LA
ARTICULACIÓN TEMPOROMANDIBULAR****A. IDENTIFIKAZIOA:**MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
..... Data:**B. INFORMAZIOA:**

Artikulazio tenporomandibularraren artrozentesia zera da, artikulazioaren barnean kanula edo orratz bat sartzea, horren bitartez seruma sartzeko eta artikulazioa bera garbitzeko. Anestesia lokalarekin edo orokorrarekin egin daiteke.

Artikulazio tenporomandibularraren artroskopia metodo diagnostikoa eta terapeutikoa izan daiteke. Horren bitartez, artikulu-barneko egitura gehienak ikusten dira, eta zenbait teknika aplika daitezke (diskoa finkatzea, atxikidurak kentzea, substantzia terapeutikoen infiltrazioa egitea); kasuen kopuru handi batean, hobetu egiten da sintomatologia.

C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Gehienetan, anestesia orokorrekin gauzaten da prozedura, eta anesthesiarekin lotutako arriskuez zure anestesistak emango dizu informazioa.

Zenbaitetan beharrezkoa da interbentzio osagarri bat egitea, hau da: "artikulazio bat irekitzea", hura berrosatzeko.

Artroskopiak balizko onurak baditu ere, mina arintzea, ahoaren irekidura handitzea, kliskak desagertzea eta abar, izan ditzake bere konplikazioak; besteren artean eta EZ era zehatzean, estatistikoki maiz gertatzen direnak:

- Ebakuntza osteko mina.
- Operazioa egin bitarteko edo operazio ondoko odoljarioa; horren ondorioz, baliteke "kirurgia irekia" egin behar izatea, odoljario horri eusteko.
- Operazio-ondoko infekzio lokala.
- Entzumen-arazoak; besteren artean, barne belarriko, erdiko belarriko edo tinpanoaren mintzeko inflamazioa eta/edo infekzioa, eta ondorioz, entzumena galtzea partzialki edo osoki, behin-behinean edo betiko, edo oreka-arazoak eta bertigoak izatea. Belarrian burrunbak eta kliskak entzutea.
- Kanpo-orbanak.
- Parotida guruinaren edo hari atxikirik diren egituren hematoma, hantura edo infekzioa.
- Aurpegi-nerbioak bolada batez edo betiko mugikortasuna galtzea; bereziki, kopetako muskuluak.
- Aurpegiko edo aho-inguruko sentikortasunaren alterazioak.
- Sintomak okertzea eta, ondorioz, artroskopia

A. IDENTIFICACIÓN:NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:**B. INFORMACIÓN:**

La artrozentesis de la articulación temporomandibular (ATM) consiste en la introducción dentro de la articulación de una cánula o agujas a través de las cuales se infiltra con suero, realizando un lavado del contenido de la misma. Se puede realizar bajo anestesia local o general.

La artroskopia de la articulación temporomandibular (ATM), puede ser un método diagnóstico y terapéutico. Con él se visualiza gran parte de las estructuras intra-articulares, y se pueden realizar una serie de técnicas (fijación del disco, retirada de adherencias, infiltración de sustancias terapéuticas), que en un alto número de casos mejoran la sintomatología que se presenta.

C.- RIESGOS Y COMPLICACIONES:

En la mayoría de los casos el procedimiento precisa anestesia general, con el riesgo inherente a la misma, de lo que será informado por su anestesista.

En algunas ocasiones es necesario realizar una intervención complementaria, que consiste en "abrir la articulación", para reconstruir la misma.

A pesar de los posibles beneficios de la artroskopia, mejoría del dolor, aumento de la apertura bucal, desaparición de los chasquidos, etc., no está exenta de complicaciones, entre las que podemos incluir y NO en forma exhaustiva las estadísticamente más frecuentes:

- Dolor postoperatorio.
- Hemorragia intra o postoperatoria, que pueda hacer necesaria una "cirugía abierta", para contenerla.
- Infección local postoperatoria.
- Problemas de oído, que incluyen inflamación y/o infección del oído interno, medio o de la membrana del tímpano, resultante en una pérdida parcial o total, transitoria o permanente de la audición o problemas de equilibrio y vértigos. Zumbidos y chasquidos de oído.
- Cicatrices externas.
- Hematoma, inflamación o infección de la glándula parótida, o estructuras adyacentes.
- Falta de movilidad temporal o permanente del nervio facial, sobre todo de la musculatura de la frente.
- Alteraciones de la sensibilidad de áreas faciales u orales.
- Empeoramiento de la sintomatología, que requiere la repetición de la artroskopia o "cirugía abierta".
- Adherencias, cambios degenerativos o anquilosis de la articulación.
- Rotura de instrumentos, que pueden requerir la repetición de la artroskopia o tener que realizar cirugía abierta reglada con incisión con bisturí sobre piel de la zona pre-

- errepikatu edo "kirurgia irekia" egin behar izatea.
- Giltzadurako ankilosia, atxikidurak edo endekapenezko aldaketak.
 - Tresneria puskatzea eta artroskopia berriz egin behar izatea edo kirurgia ireki arautua egin behar izatea, belarriaren aurreko zonako azalaren gainean bisturiarekin ebakita.
 - Hortzen maloklusioa, operatu ondoan.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez

E. ARRISKU PERTSONALAK

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuek eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

F. BESTELAKO AUKERAK:

Ohiko tratamendu kontserbatzaileak (lasaigarri muskularrak, ferula ixtekoak...).

auricular.

- Maloclusión dental postoperatoria.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D.- AVISENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones

E.- RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia,...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F.- ALTERNATIVAS:

Tratamiento conservador convencionales (relajantes musculares, férulas oclusales, etc.).

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El Paciente**Pazientearen izen-abizenak**

Nombre, dos apellidos

Sinadura eta data

Firma y fecha

Medikua/El/La Médico**Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.**

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

Sinadura eta data

Firma y fecha <<FECHA>>

Ordezkarria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad**Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal**Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.**Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha